

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Udalak udalerriko kontzejuei eta gizarte, kultura eta kirolaren arloei 2020ko ekitaldian emango dizkien dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituzten deialdia eta oinarriak

Lantarongo Udalak, 2020ko maiatzaren 13an egindako ohiko osoko bilkuran, udalak udalerriko kontzejuei eta gizarte, kultura eta kirolaren arloei (herriko jaiei dagozkienean aldatuak, 2020ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez) 2020ko ekitaldian emango dizkien dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituzten deialdiak eta oinarriak onetsi zituen.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 9. artikuluan ezarritakoarekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen printzipioekin bat etorritik, argitaratu egiten dira, denek ezagut ditzaten.

A. Udalak udalerriko kontzejuei 2020ko ekitaldian emango dizkien dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituzten deialdiak eta oinarriak

I. Xedea

Udal honek aintzat hartzen du gaur egun Lantarongo udal mugartea hamabi herrik osatzen dutela eta udalerriak ez duela zerbitzu orokorrak zentralizatzeko herrigunerik, betiere honako hauek alde batera utziz: udal bulegoak, bake epaitegia eta erregistro zibila biltzen dituen udaletxea; udaletxearen beheko solairuan kokatutako osasun kontsultategia; kultura eta hezkuntza jarduerarako erabiltzen den gizarte eta kultura zentroaren eraikin osagarria; eta udaleko kirol instalazioak (kiroldegiko pabilioia, igerilekuak, tenis eta padel pistak, bolatokia, erabilera askotariko saskibaloiko kanpoko kirol pista eta futbol zelaia). Gauzak horrela, udalerriko oinarrizko gainerako zerbitzuak kontzejuek ematen dizkiete udalerriko herritarrei, hala nola uren hornidura (bideraketa eta banaketa), saneamendu zerbitzua eta ur edangarria kloratzekoa, argiztapen publikoa eta hilerria, bai eta haien herrietako azpiegiturei eta urbanizazioari dagozkienak ere.

Lankidetzan jardute aldera, alde batetik, kontzejuen eskumenak baliatzeko finantzazioan laguntzen da Kontzejuei buruzko 11/1995 Foru Arauak ezarritakoaren arabera eta Toki Erakundearen Finantzazio Foru Funtsetik jasotzen dituzten ekarkinak osatuz (betiere aintzat hartuz kontzejuei oinarrizko partaidetza gisa zerbitzuengatik egozten zaizkien zenbatekoak zehazten eta banatzen direla zerbitzu horien benetako kostua kontuan hartzen ez duten indizeen arabera), eta, beste aldetik, herrietan eta jaietan aurrera eraman beharreko hornidura, obra eta inbertsioetan ere laguntzen da, betiere haien biztanleria urria eta sakabanaketa kontuan hartuz. Zentzu horretan, udalak 2020ko ekitaldian udalerriko kontzejuei emango dizkien diru laguntzen eta laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak ezartzen ditu, dirulaguntza eta laguntza horiek emateko araubide orokorra ere finkatuz.

II. Kontzeptua

Udalerriko kontzejuen aldeko dirulaguntzat edo laguntzat hartuko da Lantarongo Udalak emandako funts publikoen doako edozein zuzkidura, baldin eta erabilera publikoko edo gizarte intereseko jarduera bat sustatzera edo xede publiko baten lorpena bultzatzera bideraturik badago.

III. Baldintza orokorrak

Udalerriko kontzejuei eman beharreko dirulaguntzak honako partida hauen kontura ordainduko dira: 312.434000. Mantentze lanak, osasun kontsultategiaren gastuak (12.000,00 euro), 440.434000. Bestelako gastuak (96.000,00 euro), 330.434000. Baterako jaiak (60.000,00 euro),

1521.480001. Etxebizitza sozialetarako laguntzak (3.000,00 euro) eta 942.601009. eta 942.734000. administrazio batzarren obretarako laguntzak (156.488,06 euro); horiek guztiak udalak indarrean duen aurrekontuko partidak dira. Eta beharrezkoa izanez gero, bereziki 2020an obra eta zerbitzuen foru planak onetsi bai baina plan horrek azkenean finantzatzen ez dituen obra nagusiak aurreikusiz, udalak kreditu gehigarria emateko behar den espedientearen onespena izapidetuko du onartutako 2018ko aurrekontu likidazioaren gerakinaren kontura, betiere Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorriz.

Dirulaguntzak eta laguntzak emateko baldintzak honelakoak izango dira:

a). Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, legez edo arauz bestelakorik ezartzen ez bada.

b). Lehen emandako dirulaguntzek ez dute sortuko eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik, eta beste dirulaguntza bat emateko aurretik dirulaguntza eman izana ez da aurrekarizat hartuko, legez eta arauz bestelakorik ezartzen ez bada.

c). Ezin izango da eskatu dirulaguntzaren zenbatekoa handitzeko edo berrikusteko, salbuespenezko egoerek hori egitea justifikatu ezean.

Ez dira diruz lagunduko BEZari dagozkion gastuak, baldin eta zerga hori berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoa bada.

Oinarri hauetan kontzejuen hornidura gisa obrak finantzatzeko eta ekipamendua eskuratzeko ezarritako dirulaguntzak bestelakoekin bateragarriak izango dira, baldin eta, xede bera izanik, beste erakunde publiko edo pribatu batek ematen baditu eta horrek gainfinantzaziorik eragiten ez badu. Halakorik gertatzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, indarreko legerian ezarritako eran.

IV. Dirulaguntzak emateko eskumena

Laguntza eta dirulaguntzak emateko organo eskuduna udalbatza izango da; hori ez da eragozpen izango eskudantzia horiek toki legeriak ezarritakoaren arabera eskuordetu ahal izateko.

V. Deialdiaren oinarriak

1. Egin beharreko obren udal lizentzia edo alde zuzeneko jakinarazpena.

Gogora ekarri beharra dago, obrak egin aurretik, beharrezkoa dela obrak egiteko manuzko lizentzia eta, hala badagokio, dokumentazio tekniko ere, edo alde zuzeneko jakinarazpena egitea.

2. Eskaerak eta justifikazioak aurkezteko dokumentazioa eta epea.

Kasu guztietan, administrazio batzarrek eskaera eta fakturak aurkeztu beharko dizkiote udal honi 2020ko abenduaren 31ren aurretik; salbuespen gisa onartu ahal izango da, Iberdrolak, kuadrillak edo beste enpresa edo erakunde batzuek fakturatutako eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako gastu arruntei dagokienez, horiek 2021eko urtarrilaren 31ra arte aurkeztu ahal izatea. Data horren ondoren eskatzen diren laguntzek eta dirulaguntzek ehuneko 50eko murrizketa izango dute zenbatekoan. Herriko jaietako laguntzerako, ordea, dagokion atalean zehazten den moduan (8), jaiak ospatu eta bi hilabetera aurkeztu beharko dira eskabideak, eta beranduago aurkeztu badira, dagokien laguntzaren ehuneko 75 jasoko dute.

Obren, zerbitzuen, jardueraren eta ekipamendu erosketen fakturak ordainagiriekin batera aurkeztuko dira. Hala ere, faktura eta ordainagiri horiek ezin badira aurkeztu, gehienez ere bi hilabeteko epean aurkeztuko dira, betiere dirulaguntzaren ordainketaren datatik zenbatzen hasita.

Dirulaguntza emateko eta jasotzeko ezarritako baldintzak bete ezean, dirulaguntza hori ezeztatuko da eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Eta obra nagusiei dagokienez, onartutako obra egiaztagiriak ere aurkeztuko dira, diruz lagundutako obren egiaztagiriak, alegia.

Edozein kasutan ere, obrei eta ekipamenduaren erosketei begira, kontzejuaren erabakiaren egiaztagiria beharko da, zeinak onetsi beharko baititu obrak edo erosketak gauzatzea eta, behin obra egin edo ekipamendua erosi ondoren, beharrezko fakturaren ordainketa. Azken kasu horretan, ez da egiaztagiririk beharko presidente-erregidoreari edo administrazio batzarrari ahalmena eman bazaio, obra edo erosketa behar bezala egin ondoren, dagozkion fakturak ordaintzeko, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko 11/1995 Foru Arauaren arabera berezko dituen eskumenak baliatuz; halaber, obren kontrataziorako adjudikazioari buruzko arautegia bete beharko da, bai eta dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen udal ordenantza orokorra ere.

3. Administrazio batzarren obrak:

3.1. Obra txikiak.

3.1.1. Herriak egingo dituen konponketa obrak edo obra txikiak finantzatzeko eta horiek titulartasun publikoko ondasunetan gauzatzeko (lagatuko ondasun publikoetan egin beharreko obrak izan ezik edo erabilera pribaturako partikularrei lagatzea aurreikusitakoak), gerta daiteke obren ezaugarriek eragitea horiek burutzeko beharrezkoa ez izatea ez txostenik, ez egiaztagiri teknikorik ez memoria baloraturik; halakoen barruan, kanpo argiztapen publikoaren instalazioak berritzeko beharrezko obra sar daiteke kontsumoaren murrizketa lortzeko, Led luminarien aldaketa barne (3.4.1. apartatua). Kasu horretan, kanpo argiztapen publikoaren aurrezpen eta efizientzia energetikoaren aldeko inbertsioetarako laguntzei buruzko atalean ezarritako laguntzak metatu eta aplikatu ahal izango dira obra hori finantzatzeko, betiere horietarako ezarritako baldintzei jarraikiz.

Berdintasunezko laguntza bat ezartzen da, 7.000,00 eurorainokoa, udalerriko administrazio batzar guztientzat. Laguntza hori gehienez ere obra baterako izango da batzar bakoitzeko.

Lizentzia eskaerari dagokionez, udal zerbitzu teknikoak prestatutako txostena ikusiz, udalbatzak zehaztuko du, manuz eta egin aurretik, ea atal honetan sartzea bidezkoa den ala ez.

Obrak 2020an egin direla justifikatzeko beharrezko fakturak aurkeztuko dira, bai eta ordainagiriak eta kontzejuak ekitaldi berean egindako onarpen akordioak ere.

Kontzeju bakoitzari laguntza ordaindu ahal izateko, udalak manuzko lizentzia eman duela egiaztatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin eta gero, edo alde aurreko jakinarazpena beharko da, bai eta udalaren arkitekto aholkulariak obra amaierako egiaztagiria dela eta prestatu beharreko aldeko txostena ere. Era berean, egindako obrak ikuskatuko dira, behin faktura aurkeztuta.

3.1.2. Gainera, 2020ko programaren kontura lurralde honetako toki erakundeen obra txikiak gauzatzeko dirulaguntzaren onuradunak diren kontzejuak 8.000,00 euroko udal laguntza osagarri baterako eskubidea izango dute (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 405/2019 Erabakia, 2019ko ekainaren 28ko ALHAO, 74. zenbakia).

- Eskatu eta justifikatutako obren zenbatekoa kopuru horretatik gorakoa bada, horietarako laguntza osagarria emango da 8.000,00 euroko kopuruan, baldin eta obra horiek aldundiko Toki Administrazioaren Sailak diruz lagundu ez baditu.

- Eskatutako eta justifikatutako obren zenbatekoa kopuru horretatik gorakoa ez bada eta aldundiko Toki Administrazioaren Sailaren dirulaguntza jaso ez bada xede horri begira, zenbateko horren arabera laguntza osagarria emango da eta, gainera, 8.000 eurorainoko laguntza ere eman ahal izango da, behin obra txikiago bat atal honetan ezarritako eran egin dela justifikatu ondoren, edo udalak diruz lagundutako obra txikiari dagokionez, muga gainditzen duen zenbatekoan, edo kanpoko argiteria publikoko instalazioak berritzeko (kontsumoa murrizteko) egin beharreko obrari ere, led luminarien aldaketa barne.

Aldi berean, obra txikiak finantzatzeko gehienez ere finkatutako laguntzak metatu ahal izango dira (7.000 euroko berdintasuneko eta 8.000 euroko osagarria), foru aldundiak diruz lagundutako obra bakarrean aplikatzeko, baldin eta eskatutako eta justifikatutako obren zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa bada eta foru aldundiak diruz laguntzen ez baditu.

Batzarrak gastua ekitaldi barruan justifikatzen ez badu edo batzar bakoitzari dagokiona baino kopuru txikiagoan justifikatzen badu, laguntzarako eskubidea galduko da edo, hala badagokio, justifikatu ez den zenbatekoa.

3.1.3 Udalerriko herriak ur edangarriz hornitzeko zerbitzua herritarrei eman beharreko lehen-tasuneko zerbitzua da. Horregatik, Arabako Foru Aldundiak lurralde osorako uraren ziklo integralaren kudeaketa egingo duen ur partzuergoa sustatuko du; ur horniketaren eta saneamen-duaren zerbitzuak emango ditu eta tarifa bakarra izango du Arabarako. Bien bitartean, uraren kudeaketak kontzejuei eragiten dizkien gastuak nola ordainduko diren zehazten den bitartean, eta horren arabera udal honek erabaki berri bat hartzen duen bitartean, udalak "Sobrongo urbegia" ur partzuergoari laguntzak ematen jarraituko da. Horiek horrela, Udalak laguntza emango dio Sobrongo Urbegiari hark egindako obra txikiak eta konponketa obrak finantzatzeko, obren kostuaren ehuneko 60ko kopuruan; laguntza hori ordainduko da, behin atal honetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren. Hau da, obrarako udal lizentzia eskatu beharko du partzuergoak; horrela, korporazioak, obra egin aurretik eta udal zerbitzu teknikoak horren inguruan egindako txostena aztertuta, zehaztuko du ea bidezkoa den ala ez atal honetan sartzea. Halaber, egin beharreko obren nahiz fakturen inguruko erabakiak legezko eran onetsi direla egiaztatu beharko du, behin partzuergoa osatzen duten kontzejuak legez deituak izan eta gero. Gainera, obrak ikuskatu eta udal arkitektoak espediente amaieraren aldeko txostena egin beharko du aurretiaz.

3.1.4. Kontzejuak egiten dituen konponketa obrak eta obra txikiak direla-eta, berriaz herrietako gizarte zentroan egiten direnak, batzarrak kudeatzen ez dituen tabernetan egiten diren obrak izan ezik, obren ezaugarriengatik horiek burutzeko beharrezkoa ez denean ez proiektu teknikorik, ez txostenik, ez egiaztagiri teknikorik ez memoria baloraturik, obrak izanik, beste batzuen artean, margo lanak, konponketa lanak, komuneko osagaiak ordezteak, argiteria, instalazioak (altzariak ez).

Berdintasuneko laguntza bat ezartzen da, 1.000,00 eurorainokoa, udalerriko administrazio batzar guztientzat. Laguntza hori gehienez ere obra baterako izango da batzar bakoitzeko, eta apartatu honetan ezarritako moduan justifikatu beharko da.

3.1.5. Kontzejuak herrietako euri uren eta ur zikinen sareak banatzeko egiten dituzten jarduerak direla-eta, batez ere teilatuetako zorrotan, horrela sare orokorrek loturik egon ez daitezten eta arazorik sor ez dadin, baldin eta obren ezaugarriengatik horiek burutzeko beharrezkoa ez denean ez proiektu teknikorik, ez txostenik, ez egiaztagiri teknikorik ez memoria baloraturik.

Berdintasuneko laguntza bat ezartzen da, 1.000,00 eurorainokoa, udalerriko administrazio batzar guztientzat eta urteko, eta apartatu honetan ezarritako moduan justifikatu beharko da. Horretarako ezinbestekoak izango dira: kontzejuaren erabakia, udal obra baimena eta, hala behar izanez gero, eragindako jabeen baimenak.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

3.2. Foru planak diruz laguntzen ez dituen obra nagusiak.

Oinarrizko azpiegiturako obrak eta ekipamendu obrak kontzejuaren titulartasunekoak diren zerbitzu edo erabilera publikoko instalazio eta ondasunetan, bideak konpondu eta egokitzeko obrak barne, baldin eta horiek gauzatzeko proiektu teknikoak, txosten edo egiaztagiri teknikoak edo memoria baloratua behar bada. Udalak horiek egin aurretik eta udaleko zerbitzu teknikoak lizentzia eskaerari buruz egiten duen txostenari atxikiz, zehaztu ahalko du atal horretan sartzen den ala ez.

Obrak 2020an egin direla justifikatu beharko da; horretarako, obra amaierako egiaztagiria, egindako lanen fakturak, ordainagiriak eta kontzejuaren ekitaldi bereko onarpen erabakiak aurkeztuko dira, bai eta, hala badagokio, beste organismo batzuetatik jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren justifikazioa ere, posible bada.

Kontzeju bakoitzari laguntza ordaindu ahal izateko, udalak nahitaezko lizentzia eman duela egiaztatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin eta gero; halaber, udalaren arkitekto aholkulariak obra espedientearen amaierako egiaztagiriaren aldeko txostena egin beharko du, behin faktura eta amaiera egiaztagiria aurkezturik egindako obrak ikuskatu eta gero. Bestalde, kontzejuak obra onartu duela egiaztatzen duen agiria ere erantsi beharko du.

Udalak ekonomikoki lagunduko die obra hauek egiten dituzten administrazio batzarrei, behin horiek amaitu eta aukera ekonomikoak kontuan hartuta; horretarako, obraren kostuaren ehuneko 60rainoko dirulaguntza eman ahal izango du edo, hala bada, dagokion organoak benetan emandako dirulaguntzaren eta obraren egiaztagiri-likidazioaren zenbatekoaren arteko aldearen ehuneko 60rainokoa.

Nolanahi ere, udalak beharrezko zenbatekoak ordainduko ditu obra egiaztagiriei dagozkien ordainketa partzialen bidez; horiek konturako ordainketatzat hartuko dira egiaztagiri-likidazioaren araberako azken dirulaguntzari dagokionez eta, hala denean, beste erakunde batek emandako guztizko dirulaguntzari dagokionez.

Udalak diru laguntzetarako gehienez ezarritako kopurua 30.000,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

Era berean, kontzeptu honengatik administrazio batzar guztiei batera gehienez eman da-kiekeen dirulaguntzaren kopurua 150.000,00 eurokoa izango da. Muga hori gaindituz gero, dirulaguntza ordainduko da batzarrek eskatutako diru laguntzen heinean.

Obraren dirulaguntzari aplikatu beharreko arauen egikaritzapena zehaztuko dutenak honakoak izango dira: teknikariak egindako obra amaierako egiaztagiriaren data eta berak izenpe-
tutako obra amaiera proiektuarena, posible bada, eta obra amaieraren egiaztagiriaren ones-
pena. Agiri horien guztien data 2020koa izango da betiere.

Udalak egiaztatzen badu obra berberari begira bestelako dirulaguntzarik dagoela eta hori ez dela hala adierazi, ez du dirulaguntza ordainduko edo itzultzeko eskatuko du.

Obra prestatzeko, zuzentzeko eta ikuskatzeko proiektuaren lanen ordainsarien kontuek edo txosten edo egiaztagiri teknikoaren euren zenbatekoaren ehuneko 50eko dirulaguntza jaso ahal izango dute edo, hala badagokio, diruz lagundu ez den zatiaren ehuneko 50ekoa, ezarritako mugen barruan.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

3.3. Foru planak diruz lagundutako obrak.

Obra eta zerbitzuen foru planak, inbertsio plan bereziak, lur azpiko azpiegituren plan bereziak eta auzo erlazioetarako planak jasotzen duten programari dagozkion laguntzak lortzen dituzten obrak sartzen dira.

Udalak obra horiek aurrera eramaten dituzten administrazio batzarrekin jardungo du lankidetzan ekonomikoki, behin lanak amaitu ondoren eta aukera ekonomikoen heinean. Horretarako, orain arte izandako irizpideari jarraituko dio; izan ere, obraren likidazioaren egiaztagiriaren zenbatekoaren eta benetan emandako dirulaguntzaren arteko aldearen ehuneko 60rainoko dirulaguntza emango du.

Nolanahi ere, udalak beharrezko zenbatekoak ordainduko ditu obra egiaztagiriei dagozkien ordainketa partzialen bidez; horiek konturako ordainketatzat hartuko dira egiaztagiri-likidazioaren araberako azken dirulaguntzari dagokionez eta Toki Administrazioaren Zuzendaritzak emandako guztizko dirulaguntzari dagokionez.

Obrak 2020an egin direla justifikatu beharko da; horretarako, obra amaierako egiaztagiria, egindako lanen fakturak, ordainagiriak eta kontzejuaren ekitaldi bereko onarpen erabakiak aurkeztuko dira, bai eta atal honetan jasotako plan eta programetarik jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren justifikazioa ere, posible bada.

Kontzeju bakoitzari laguntza ordaindu ahal izateko, udalak nahitaezko lizentzia eman duela egiaztatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin eta gero; halaber, udalaren arkitekto aholkulariak obra espedientearen amaierako egiaztagiriaren aldeko txostena egin beharko du, behin faktura eta amaiera egiaztagiria aurkezturik egindako obrak ikuskatu eta gero. Bestalde, kontzejuak obra onartu duela egiaztatzen duen agiria ere erantsi beharko du.

Udalak diru laguntzetarako gehienez ezarritako kopurua 64.000,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

Era berean, kontzeptu honengatik administrazio batzar guztiei batera gehienez eman da-kiekeen dirulaguntzaren kopurua 300.000,00 eurokoa izango da. Muga hori gaindituz gero, dirulaguntza ordainduko da batzarrek eskatutako diru laguntzen heinean.

Obraren dirulaguntzari aplikatu beharreko arauen egikaritzapena zehaztuko dutenak honakoak izango dira: teknikariak egindako obra amaierako egiaztagiriaren data eta berak izenpe-
tutako obra amaiera proiektuarena, posible bada, eta obra amaieraren egiaztagiriaren ones-
pena. Agiri horien guztien data 2020koa izango da betiere.

Udalak egiaztatzen badu obra berberari begira bestelako dirulaguntzarik dagoela eta hori ez dela hala adierazi, ez du dirulaguntza ordainduko edo itzultzeko eskatuko du.

Obra eta zuzendaritza proiektua eta obra ikuskatzeko proiektua prestatzeko ordainsarien kontuek ehuneko 60ko dirulaguntza jaso ahal izango dute, foru aldundiak diruz laguntzen ez duen zatiari dagokionez, eta betiere ezarritako muga barruan.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

3.4. Ekipamendua.

3.4.1. Kanpo argiztapen publikoaren aurrezpen eta efizientzia energetikoaren inbertsioen aldeko laguntzak.

Kontzejuen aldeko dirulaguntza ezartzen da, kanpo argiztapen publikoaren instalazioak teknologia efizienteak erabiltzen dituzten beste batzuen ordez aldatzeko eta berritzeko, energia elektrikoaren kontsumoaren murrizketa lortu nahian; horren barruan sartzen da luminariak energetikoki efizienteagoa den Led teknologiaren beste batzuen ordez aldatzea; laguntzaren zenbatekoa ehuneko 75ekoa izan ahalko da, betiere helburu horretarako Foru Aldundiak edo beste organismo batek onartutako deialdien bidez benetan emandako dirulaguntzaren eta haien kostuaren aldeari dagokionez.

Horiek instalatzeko beste organismo baten dirulaguntzarik lortu ezean, emango den dirulaguntza kostuaren ehuneko 50ekoa izango da, eta ehuneko 60ra handitu ahal izango da, kontzejuak helburu horretarako foru aldundiari edo beste organismo bati horretarako onartu-
tako deialdien bidez eskatutako dirulaguntzaren ukapena egiaztatzen denean.

Dirulaguntzetarako gehienez ezarritako kopurua 5.000,00 eurokoa izango da, kontzejuko eta urteko.

Beste erakunde batetik jasotzen bada dirulaguntza instalatzeko edo egiaztatzen bada kontzejuak xede bererako eskatutako dirulaguntza ukatu dela, 6.000,00 euro izango da muga.

Bestalde, argitu beharra dago laguntzan ez direla sartzen ez makuluak ez antzekoak. Horiek, 12. apartatuan sartzen dira (Kanpoko hiri ekipamendua eta altzariak). Eta argiteria publikoan kontsumoak murrizteko ekipamenduak instalatzeko beharrezko obrak (led luminariak ordeztea

barne), hala badagokio, obra txiki gisa eskatu ahalko dira oinarri hauetako 3.1 apartatuan ezarritako baldintzetan, eta aipatutako 3.1 apartatuan ezarritako laguntzei gehitu ere egin ahalko zaie, kontsumoa murriztea lortze aldera kanpoko argiteria publikoko instalazioak berritzea finantzatzeko.

Nolanahi ere, laguntzak honako baldintza bete beharko du: sistema berriaren funtzionamenduaren ondorengo hamabi hilabeteetako fakturak aurkezturik eta aurreko hamabi hilabeteetako kontsumoa ikusirik (fakturretatik ondorioztatuko den kontsumoa), kontsumoan izandako benetako aurrezpen efektiboa gutxienez ehuneko 30ekoa izan dela egiaztatzea. Hala izan ezean, administrazio batzarrak itzuli beharko du emandako dirulaguntza edo konturako konpentsazioa egin beharko du udalak eman beharreko beste laguntza batzuetatik.

3.4.2. Neguko bidezaintza.

Kontzejuek euren mugartean elurra garbitzeko xaflak edo antzeko ekipamenduak erosteko dirulaguntza ezartzen da, horien erosketa eta instalazio kostuaren ehuneko 60koa izango dena: laguntzaren gehieneko muga 2.000,00 eurokoa izango da kontzeju bakoitzeko. Aldi berean, izotzaren kontrako eskamak erosteko laguntza ezartzen da, ehuneko ehunekoa; gehieneko muga 200,00 eurokoa izango da. Hori erosten denetik lau urte igarota, aldatzeko edo berritzeko dirulaguntza eskatu ahal izango da.

Era berean, elurra herrietan garbitzeko eta eskamak eskuratzeko zerbitzuaren prestazioaren gastuei aurreko egiteko dirulaguntza ezartzen da; horretarako, gehieneko muga, guztira, 800,00 eurokoa izango da kontzeju eta urteko. Horretarako, behar bezala gaitu eta aseguratutako pertsonalak egindako zerbitzuaren fakturak aurkeztu beharko dira, bai eta erosketarenak eta erantzukizun zibilaren aseguruia ere.

Xaflak edo antzeko ekipamenduak erosteko hautua egiten duten kontzejuek ezin izango dute elurra garbitzeko zerbitzuaren prestazioaren gastuetarako laguntzarik eskatu, harik eta erosketatik lau urte igaro arte.

3.4.3. Beste organismo batek diruz lagundutako ekipamendu orokorra.

Udalak ekonomikoki jardungo du lankidetzan euren titulartasuneko zerbitzu edo erabilera publikoko instalazio edo ondasun ekipamenduez hornitzen diren administrazio batzarrekin, horien erosketa beste organismo batek diruz laguntzen badu –hala nola sasiak garbitzeko makinak, bideen berdintzaileak, deskaltzifikatzaileak (AFA), gizarte zentroetako ekipamendua (GOFE)... eta antzeko elementuak-; horretarako, ehuneko 60rainoko dirulaguntza emango du, organismoak benetan emandako dirulaguntzaren eta haren zenbatekoaren arteko aldeari dagokionez, eta betiere saldoaren arabera faktore zuzentzailea aplikatuz. Gehieneko muga 2.000,00 eurokoa izango da.

Ez da dirulaguntzarik emango, baldin eta foru aldundiak edo beste organismo batek administrazio batzarrei ukatzen badiote ekipamendurako eskatutako dirulaguntza.

2020an egindako ekipamenduak erosketa faktura bidez justifikatu beharko dira eta, hala badagokio, obra egiaztagiria bidez; kontzejuek ekitaldi horretan onartu behar ditu eta jasoko dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatu. Halaber, kontzejuak onartu duela ziurtatzen duen egiaztagiria ere aurkeztuko da.

Udalak diru laguntzetarako gehienez ezarritako kopurua 12.000,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

Dirulaguntzari aplikatu beharreko arauen egikaritzapena zehaztuko dutenak honakoak izango dira: fakturaren data eta, hala badagokio, amaiera egiaztagiria eta kontzejuak egindako onarpena. Agiri horien guztien data 2020koa izango da betiere.

Obra prestatzeko, zuzentzeko eta ikuskatzeko proiektuaren lanen ordainsarien kontuek edo txosten edo egiaztagiria teknikoarenek, nahitaezkoak direnean, euren zenbatekoaren ehuneko 50eko dirulaguntza jaso ahal izango dute edo, hala badagokio, diruz lagundu ez den zatiaren ehuneko 50ekoa, ezarritako mugen barruan.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

3.5. Interesak.

Administrazio batzarrak sinesgarriro egiaztatzen badu obra nagusia egiteko premia duela, kontzejuak hori egiteko aukerarik ez duela eta foru aldundiak finantzaketarako ezarritako foru lineari ezin diola heldu, udalak interesen ehuneko 80rainoko dirulaguntzarako aukera aztertuko du, betiere administrazio batzarrak obra hori egiteko ekarkin ekonomikoaren finantziarioari begira kontratu beharreko maileguak 2020an sorrarazten dituen interesei dagokienez.

Udalak laguntzarako gehienez ezarritako kopurua 3.000,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

4. Saneamendu zerbitzua.

Arabako Foru Aldundiak lurralde osorako uraren ziklo integralaren kudeaketa egingo duen ur partzuergoa sustatzen duen bitartean, zeinak ur horniketaren eta saneamenduaren zerbitzuak emango baititu eta tarifa bakarra izango baitu Arabarako, eta uraren kudeaketak kontzejuei eragiten dizkien gastuak nola ordainduko diren zehazten den bitartean, eta horren arabera udal honek erabaki berri bat hartzen duen bitartean, udaleko kontzejuei zerbitzu hauetarako laguntza ematen jarraituko du udalak:

Putzu septikoak eta arazketa sistemak urtero garbituko dira; udalak bere gain hartuko du kostuaren ehuneko 60, baldin eta zerbitzua Añanako Kuadrillaren enpresa adjudikaziodunak ematen badu; era berean, kostuaren ehuneko 50 hartuko du bere gain, baldin eta zerbitzua kuadrillak ematen ez badu. Barne hondakin uren araztegien garbiketa eta mantentzea, haien egoera ona eta ustiaketa bermatzeko. Zerbitzu hori enpresa espezializatuek egingo dute aholkularitza tekniko eta aldiro prebentziozko berrikusketak egiteko gain direnak. Ez dituzte matxurak konpondu beharko. Udalak kostuaren ehuneko 60 hartuko du bere gain. Dena den, laguntza, gehienez, urteko eta administrazio batzarreko 1.500,00 euro izango da.

Halaber, ur edangarriko andelak garbitzeko kostuak hartuko ditu bere gain. Udalak zerbitzu honen baterako kudeaketari lagunduko dio.

Orobat, saneamendu eta euri sare publikoak garbitzeko eta hoditeria, arketak eta estoldak libratzeko eta garbitzeko lanak diruz lagunduko ditu kostuaren ehuneko 50arekin; lan horiek Añanako Kuadrillaren kontratatutako enpresak egiten baditu, diruz lagunduko ditu ehuneko 60arekin. Garbiketa lan horietarako laguntzaren gehieneko muga 600,00 eurokoa izango da batzarreko eta urteko.

5. Argiztapen publikoa.

2021aren hasieran ordainduko da, agindu bakar baten bidez. Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da: 2020ko argiztapen publikoari dagozkion ordainagiri ordainduen fakturazioaren ehuneko 50.

Orain arte argiztapen publikoaren murrizketara zuzendutako ekipoaren instalazioa egiaztatu duten batzarrei dagokienez (horren barnean, led luminarien aldaketa sartura), dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da: 2020an argiztapen publikoa dela-eta ordaindutako ordainagirien fakturazioaren ehuneko 65.

Argiztapen publikoaren kontsumoaren murrizketara zuzendutako ekipoaren instalazioa ekitaldi barruan egiaztatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa izango da 2020ko argiztapen publikoari dagozkion ordaindutako ordainagirien fakturazioaren ehuneko 65. Nolanahi ere, laguntzak honako baldintza bete beharko du: sistema berriaren funtzionamenduaren ondorengo 12 hilabeteetako fakturak alde aurretik aurkezturik eta aurreko 12 hilabeteetako kontsumoa ikusirik (faktoretatik ondorioztatuko den kontsumoa), kontsumoan izandako benetako aurrezpen efektiboa gutxienez ehuneko 30ekoa izan dela egiaztatzea. Hala izan ezean, administrazio batzarrak emandako laguntzaren ehuneko 15 itzuli beharko du edo konturako konpentsazioa egin beharko du udalak eman beharreko beste laguntza batzuetatik.

Udalak laguntzarako gehienez ezarritako kopurua 2.600,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

Udalari aurkeztzen zaion gastuen aurrekontuaren dokumentazio zehatzari atxikiz, kontzejuei laguntzak emateko baldintza espezifikokoak aztertuko dira, historia, arkitektura, ondare edo kultura aldetik interesa duten eraikin publikoak edo erabilera publikokoak (elizak...) argiztatzea xede duten jardueretarako baldin eta, aurretik aztertuta, udalak, herriaren irudi ona sustatzeko, lehentasuna dutela jotzen badu.

6. Motorrak, ponpak, ur zundaketa.

Arabako Foru Aldundiak lurralde osorako uraren ziklo integralaren kudeaketa egingo duen ur partzuergoa sustatzen duen bitartean, zeinak ur horniketaren eta saneamenduaren zerbitzuak emango baititu eta tarifa bakarra izango baitu Arabarako, eta uraren kudeaketak kontzejuei eragiten dizkien gastuak nola ordainduko diren zehazten den bitartean, eta horren arabera udal honek erabaki berri bat hartzen duen bitartean, udaleko kontzejuei zerbitzu hauetarako laguntza ematen jarraituko du udalak:

Udalak ehuneko 60arekin lagunduko ditu diruz kontzeptu horrengatik 2020an pagatutako ordainagiriak. 2021aren hasieran ordainduko dira, agindu bakar baten bidez.

7. Alerta gorria.

Arabako Foru Aldundiak lurralde osorako uraren ziklo integralaren kudeaketa egingo duen ur partzuergoa sustatzen duen bitartean, zeinak ur horniketaren eta saneamenduaren zerbitzuak emango baititu eta tarifa bakarra izango baitu Arabarako, eta uraren kudeaketak kontzejuei eragiten dizkien gastuak nola ordainduko diren zehazten den bitartean, eta horren arabera udal honek erabaki berri bat hartzen duen bitartean, udaleko kontzejuei zerbitzu hauetarako laguntza ematen jarraituko du udalak:

Alerta gorrian dauden batzarren aldeko dirulaguntza, foru aldundiak 2020an diruz laguntzen ez duen zati osoari dagokionez.

8. Herriko jaiak.

Administrazio batzar bakoitzarentzat gehienez ere bost mila (5.000,00) euroko laguntza. Laguntza ingesatzeko, xede horretarako benetan aplikatu dela justifikatu beharko da; horretarako honakoak aurkeztu beharko dira alde aurretik: aurrera eramandako ekintzen eta jardueren fakturak eta ordainagiriak, administrazio batzarraren izenean, hala badagokio, horien barnean aseguru eta multzo elektrogenoa sartuz, gutxienez laguntzaren berbera izango den zenbateko batean. Ez da laguntzarik emango honako gastu hauetarako: hamaiketako, afari, bazkari, edari, suziri, su artifizial, garbiketa lan, kartel, apaingarri, banderatxo, sari eta garaikurretarako eta antzekoetarako, ez kioskoa garraiatzeko ere. Bi hilabeteko epea ezarri da haiek egiten direnetik, udalari kasuan kasuko laguntza eskatzeko. Beranduago aurkeztzen badira, dagokion laguntzaren ehuneko 75 emango da.

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako ezohiko egoeraren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi da. Errege dekretu horren bidez, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaritzen da eta zenbait neurri ezartzen dira herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko. Neurri horien ondorioz, urrutze fisikoa ezarri da eta pertsonen eta gure herrialdeko gizarte eta ekonomia jardueren mugikortasuna murriztu eta mugatu dira, 19 hedatzea eragozten eta osasun publikoen sistema indartzen laguntzeko. Laguntzei eutsiko zaie, baldin eta tokian tokiko herriko jaiak beren egunetan ospatu ahal badira; beti ere, erakunde eskudunek osasuna eta segurtasuna babesteko ezarritako neurriak beteta. Ez da dirulaguntzarik emango kontzejuetako jaiak beren egunetan ospatzerik ez badago, nahiz eta beste egun batzuetan ospatu.

9. Ondasunen inbentarioa.

Kontzejuen ondasun eta eskubideen inbentarioak behin betiko onartu eta gero, udalak laguntza bat emango du lan hori prestatzeko eta, beharrezkoa denean, ondasunak jabetza erregistroan inskribatzeko kontratutako enpresak egin beharreko kudeaketa lanak finantzatzeko aldera; laguntza jarduketan eta kudeaketan kostuaren ehuneko 50ekoa izango da eta batzarrek ehuneko beste 50a jarri beharko dute. Aztertuko da ea lagundu daitekeen erregistroaren beraren kostua, bere zenbatekoa balioztatzen denean.

10. Udalerriko kontzejuen artxiboak gaurkotzea eta digitalizatzea.

Kontzejuen artxiboak gaurkatzeko zerbitzuaren kostuaren ehuneko 50eko laguntza batzarrentzat. Lana Añanako Kuadrillako langileek egingo dute. Artxiboak gaurkatzeko laguntza hura ezin izango da berriro eskatu, lau urte igaro arte.

Kontzejuko dokumentazioko armairu-artxibategiak erosteko laguntzak batzarrei zuzenduko zaizkie, eta kostuaren ehuneko 75en parekoak izango dira; gehienezko muga 500,00 eurokoa da batzar eta urteko. Ezingo da erosketa horretarako beste laguntzarik eskatu harik eta bost urte igaro arte.

11. Aisialdi ekipamendua gizarte zentroentzat.

Herrietako gizarte zentroei aisialdi ekipamendua erosteko kostuaren ehuneko 70eko laguntza batzarrentzat. Hala, honako ekipamendua erosi ahal izango da: mahai-futbolak, billarrak, mahai jokoak, ordenagailuak, telebistak, kontsolak, ps4 jokoak, mikrofonoak, proiektzio ekipamendua, kafe makinak, gimnastika egiteko tresnak, tatamiak edota herriko jardueretan erabiltzeko jesarlekuak, aulkia edo mahaiak, eta, hala badagokio, horien guztien konponketa, materialak eta arropa gordetzeko armairua, gurdi gurgilduna... bai eta alarman eta berogailuaren instalazioa ere. Laguntzen gehieneko muga bi mila (2.000,00) eurokoa izango da batzarreko eta urteko. Ezin izango da ekipamendua aldatzeko laguntzarik eskatu harik eta bost urte igaro arte.

12. Kanpoko hiri ekipamendua eta altzariak.

Herrietako kanpoko hiri altzarien elementuak erosteko kostuaren ehuneko 70eko laguntza batzarrentzat. Hala, honako altzariak erosi ahal izango dira: jesarlekuak, mahaiak, paperontziak, bizikletak uzteko gailuak, iturriak, loreontzi-euskarriak, eskudelak, farolen euskarri edo zutoinak (instalaziorik gabe), bai eta kanpoaldean jar daitezkeen saskibaloiko saskiak, areto-futboleko ateak, ping-pongeko mahaiak, bestelako kirol elementuak, zabuak edo bestelako haur parkeak, kea ateratzeko kanpaia erretegi komunerako tximiniarekin, karpak, eguzkitakoak eta toldoak. Laguntzen gehieneko muga bi mila (2.000,00) eurokoa izango da batzarreko eta urteko. Ezin izango da ekipamendua aldatzeko laguntzarik eskatu harik eta bost urte igaro arte.

13. Karpak alokatzea.

Karpen alokairu kostuaren ehuneko 70eko laguntza, herrian ekitaldiak egiteko, esaterako jaie-tako ospakizunak, inauteriak eta antzekoak. Urtean, gehienez ere, 2.000 euro batzar bakoitzari.

14. Kale, plaza, parke, berdegune, lorategi, bide eta gainerako espazio publikoen garbiketa, mantentze eta zaintze zerbitzua emateko ekipamendua, hala nola motosegak, traktorarako palak, xehamakinak, erraztatzeko makinak, belarra mozteko makina, motozerrak, hidrogarbigailuak...

Kontzejuei dotazio horiek erostearen kostuaren ehuneko 80 emango zaie, gehienez ere hiru mila (3.000,00 euro), batzarreko eta urteko. Ezin izango da ekipoak aldatzeko laguntzarik eskatu harik eta 4 urte igaro arte.

15. Ur edangarriak, kloratzaileak eta ur edangarrien tresnak mantentzeko eta kontrolerako lanak.

Arabako Foru Aldundiak lurralde osorako uraren ziklo integralaren kudeaketa egingo duen ur partzuergoa sustatzen duen bitartean, zeinak ur horniketaren eta saneamenduaren zerbitzuak emango baititu eta tarifa bakarra izango baitu Arabarako, eta uraren kudeaketak kontzejuei

eragiten dizkien gastuak nola ordainduko diren zehazten den bitartean, eta horren arabera udal honek erabaki berri bat hartzen duen bitartean, udaleko kontzejuei zerbitzu hauetarako laguntza ematen jarraituko du udalak:

Batzarrentzako laguntzak, ur edangarriak, kloratzaileak, ur edangarrien tresnak eta deskaltzifikatzaileak mantentzeko eta kontrolatzeko zerbitzuaren gastuak ordaintzeko, horren barnean herrietan enpresa espezializatuek aurrera eramaten dituzten kloroaren kontrola, komunikazio sistema, EUAren mantentze lana eta inkrustatzearen aurkakoa ematea, kontsumo uren zaintza eta hondakin uren azterketa sartuz; laguntzak kostuaren ehuneko 60 estali ahal izango du zerbitzua Añanako Kuadrillaren enpresa adjudikaziodunak ematen badu, horren barnean, hala badagokio, urari burdina kentzeko tratamendua sartuz. Zerbitzua ez badu ematen Añanako Kuadrillak, kostuaren ehuneko 50 izango da laguntza, BEZaren kudeaketa kostua ere barne; ehuneko 60 izango da laguntza, ordea, kuadrillak ematen badu, eta ehuneko 50 beste erakunde batek ematen badu.

Halaber, udalak ekonomikoki jardungo du lankidetzan kloro askeko aztertzaileak, kontsumo urak zaintzeko klorazio ekipoaren komunikazio sistemaz eta gogortasuna egonkortzeko ekipo deskaltzifikatzaileak hornitzen diren administrazio batzarrekin, baldin eta beste organismo batek horien erosketa diruz laguntzen badu; horrela, ehuneko 60ko dirulaguntza emango da erakundeak benetan emandako dirulaguntzaren eta haien kopuruaren arteko aldeari men eginez. Eta dirulaguntza ukatzen bazaie eta halaxe egiaztatzen bada, eskatutako ekipamenduaren kostuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango da.

Kontzejuen aldetik etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamendu zerbitzuen prestazioko tasa arautzen duen zerga ordenantzari dagozkion tarifak eguneratzeari lotuta Arabako Foru Aldundiak edo beste erakunderen batek emandako txosten tekniko-ekonomikoetan proposatutako tarifak aplikatzeagatik (udal honetako laguntzak kendu ondoren, apartatu honetan zein oinarri hauetako laugarren apartatuan adierazitakoarekin bat etorritz) kobra daitezkeen kontagailuen artean proportzionalki jasanarazi beharreko kuotak proposatutakoak edo gehienezko maila gisa behin betiko onartutakoak baino txikiagoak baldin badira, eta azken horiek aplikatzeko eskatuz gero, orduan sortutako gehiegizko baliabideak nahitaez bideratu beharko dira saneamendu eta hornidura zerbitzuak emateko beharrezko oinarrizko azpiegiturak amortizatuz, baita etorkizuneko konponketa, ordezkate, handitze eta hobekuntza lanetara ere.

Udalak araztegi instalazio horien kontsumo energetikoaren kostuaren ehuneko 60 lagunduko du diruz 2020an zehar.

16. Udalerriko administrazio batzarrei herriguneko zona berde, lorategi eta espazio publikoak (hilerriak barne) mantentzeko eta zaintzeko zerbitzuaren kostuaren ehuneko 85eko laguntza emango zaie, 2020ko ekitaldian. Zerbitzu hori administrazio batzarrek bere kontratatutako enpresek egingo dute. Horrez gain, Añanako Kuadrillak 2020an zuhaixkak mozteko zerbitzuarengatik ordaindutakoa laguntzeko ere laguntza emango da. Zeregin bi horiengatik administrazio batzar bakoitzari urteko hiru mila (3.000.00) euro emango zaio. Administrazio batzar bakoitzak 2020an lan horiek egin dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, ordainketa eskaerarekin batera fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko ditu, 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

17. Osasun kontsultategiak mantentzeko gastuak. Osasun kontsultategia duten administrazio batzarrei laguntza ekonomikoa; osasun kontsultategia eta haren galdara mantentzeko gastuen ehuneko 100eko dirulaguntza 2020an zehar, lehenago horien egiaztagiria aurkezten baditu (fakturen eta ziurtagirien kopia, eta egin badira, ordainketena).

Mantentze gastuen artean, kontsultategia eta gelak margotzeko lanak sartuko dira, baldin eta udal arkitektoaren txostenarekin bat etorritz hori egitea beharrezkoa bada.

18. Irisgarritasuna.

Eusko Jaurlaritzak eta/edo Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen duten jardueretarako, udalak ekonomikoki parte hartzen jarraituko du udal mugarteko herrietako eremu publikoen irisgarritasun baldintzen hobekuntzari heltzeko jarduketak finantza daitezen; horretarako, kontzeju

bakoitzari 2020an egindako obren eta jarduketan kostuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango dio, baldin eta foru aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak jarduketok diruz lagundu ez badituzte; batzarrek jarduketaren gainerako ehuneko 40a ordaindu beharko dute.

Administrazio batzarrei euren herrietako eremu publikoen irisgarritasuna hobetzeko Foru Aldundiari eskatutako jarduketarako dirulaguntza ukatzen badiete eta hori halaxe egiaztatzen badute, eskatutako jarduketaren kostuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango zaie.

19. Batzarren zuzkidura informatikoa.

Udalak interesa dauka udalerriko administrazio batzarrek gaien kudeaketa eta haiekiko komunikazioa errazteko ekipo informatikoaren, informatika euskarrien eta aplikazioen zuzkidura bat izan dezaten; interes hori kontuan hartuz, erosketa eta instalazioaren eta osagai periferikoen kostuaren ehuneko 60ko dirulaguntza emango die. Laguntzaren gehieneko muga mila eta bostehun (1.500,00) eurokoa izango da, batzarreko eta urteko. Erosketatik lau urte igarota, ekipo informatikoa aldatzeko dirulaguntza berriro ere eskatu ahal izango da.

Halaber, batzarkideen prestakuntza gastuetarako ere laguntza emango da, informatika tresnen erabileran trebatzeko, eta espedienteak kudeatu ahal izateko, eta udal, aldundi, Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde batzuekin dituzten komunikazio elektronikoetarako.

20. Isurien baimena.

Udalak administrazio batzarrekin jardungo du lankidetzan; horretarako bere gain hartuko du isuriaren baimena lortzeko eta, hala badagokio, maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren arabera baimena berritzeko behar den dokumentazioa betetzeko aurrera eramango diren jarduketan kostuaren ehuneko 70. Jarduketok enpresa espezializatuek eramango dituzte aurrera.

21. Izurriteak.

Administrazio batzarrei zuzenduta, termitak kontrolatzeko tratamendu integralaren zerbitzuaren kostu osoaren ehuneko 40ko laguntzak, enpresa espezializatuek herrietako hirigunetako errepideetan eta eremu publikoetan egin beharrekoak, lurpeko harrapaketa gailuak instalatuz; honen barruan, mantentze lanak ere sartzen dira, bai eta teknikarien txostenaren arabera eta kontseiluak onetsita eraikinetan egin beharreko jarduketa zehatzak ere, baldin eta ukitako jabeek kostuaren ehuneko berrogeita hamar bere gain hartzen badute. Eta modu berean jokatu da karraskarien izurria egonez gero.

Aurreko atalean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, kostuaren ehuneko 40ko laguntza eman ahalko da, eta instalazioan hurrengo lau urteetan egingo den mantentze lanei dagokiona ere barne hartuko du aurrerapen eta konturako entrega gisa, baldintza batekin: administrazio batzarrak urtero egiaztatzea termitak kontrolatzeko tratamendu integralaren zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak zuzen betetzen dituela zaintza eta mantentze lanak. Edozein kausa dela medio egiten ez bada, mantentze lanari lotuta aurrerapenez emandako dirulaguntzaren zenbatekoa udalari itzuli beharko zaio.

22. Etxebizitza sozialak.

Kontzejuei laguntza emango zaie, baldin eta bere herrian etxebizitzaren jabe izanik erabakitzen badute alokairuko etxebizitza soziala izateko bereoneratzea, Eusko Jaurlaritzaren babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzoruko neurri finantzarioei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, eta bereoneratu eta babespeko alokairuan jartzeko laguntzaren onuradun badira, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzaren ebazpenaren indarrez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzko 2008ko azaroaren 7ko Aginduan xedatutakoaren indarrez.

Udalak bereoneratze obra horiek aurrera eramaten dituzten administrazio batzarrekin jardungo du lankidetzan ekonomikoki, behin lanak amaitu ondoren eta aukera ekonomikoen heinean, eta obraren likidazioaren egiaztagiraren zenbatekoaren eta Eusko Jaurlaritzak benetan emandako dirulaguntzaren arteko aldearen ehuneko 60rainoko dirulaguntza emango du.

Onartuko dira kontzesioak eta ordainketa partzialak, Eusko Jaurlaritzak obrarako ordaindutako dirulaguntzaren ehuneko 80ari dagozkionak, eta Eusko Jaurlaritzak ordaindutako ehuneko 20ari dagokiona gero, alokairu kontratatua aurkeztean.

Obrak 2020an egin direla justifikatu beharko da; horretarako, obra amaierako egiaztagiria, egindako lanen fakturak, ordainagiriak eta kontzejuaren ekitaldi bereko onarpen erabakiak aurkeztuko dira, bai eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzatik jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren justifikazioa ere.

Ez da laguntzarik emango sukaldeko ekipamendurako ez bestelakoetarako, ezta idazte ez obra zuzendaritzako ordainsarietarako ere.

Kontzeju bakoitzari laguntza ordaindu ahal izateko, udalak nahitaezko lizentzia eman duela egiaztatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin eta gero; halaber, udalaren arkitekto aholkulariak obra espedientearen amaierako egiaztagiriaren aldeko txostena egin beharko du, behin faktura eta amaiera egiaztagiria aurkezturik egindako obrak ikuskatu eta gero. Bestalde, kontzejuak obra onartu duela egiaztatzen duen agiria ere erantsi beharko du.

Udalak dirulaguntzetarako gehienez ezarritako kopurua 20.000,00 eurokoa izango da, batzarreko eta urteko.

23. Fontechako lantegi eskolako komunak.

Fontechako Administrazio Batzarrari laguntza nominatiboa emango zaio, Fontechako lantegi eskolako komunetako obrak, Lanbidek agindutakoak eta Udal Hirigintza Zerbitzuaren txostenaren arabera administrazio batzar horren eraikin batean egin beharrekoak, egiteak eragindako gastuak finantzatzeko, 25.000,00 euroko mugarekin, behin kenduta Fontechako Kontzejuak jarduera horietako bakoitzerako xede berarekin beste erakunde batzuetatik jasotzen dituen laguntzak eta dirulaguntzak.

Udalak laguntza ekonomikoa emango dio Fontechako Administrazio Batzarrari, urbanizazio obrak bukatu ondoren, hain zuzen, ehuneko 100eko laguntza, obraren likidazio ziurtagiriaren zenbatekoaren eta beste erakunde batzuek xede bererako benetan emandako dirulaguntzen arteko aldearena, alegia..

Obrak 2020an egin direla justifikatu beharko da; horretarako, posible bada, obra amaierako egiaztagiria, egindako lanen fakturak, ordainagiriak eta kontzejuaren ekitaldi bereko onarpen erabakiak aurkeztuko dira, bai eta xede bererako jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren justifikazioa ere.

Kontzejuari laguntza ordaindu ahal izateko, udalak nahitaezko lizentzia eman duela egiaztatu beharko da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin eta gero; halaber, udalaren arkitekto aholkulariak obra espedientearen amaierako egiaztagiriaren aldeko txostena egin beharko du, behin faktura eta amaiera egiaztagiria aurkezturik egindako obrak ikuskatu eta gero. Bestalde, kontzejuak obra onartu duela egiaztatzen duen agiria ere erantsi beharko du.

Obraren proiektua idazteko eta zuzendaritza egiteko ordainsariak baldintzak berberetan eta finkatutako muga barruan lagunduko dira.

24. Arauen interpretazioa.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

B. Gizarte, kultura eta kirolaren arloan dirulaguntzak eta laguntzak arautzeko deialdia eta oinarriak

I. Xedea

Deialdi honen xedea dirulaguntzak eta laguntzak ematea da, udalerrian gizarte, kultura eta kirol arloko ekimenak, programak eta jarduerak garatzen laguntzeko eta hala udalaren esku-hartzea osatzeko.

Deialdia eraenduko dutenak honakoak izango dira: oinarri hauek, 2006ko maiatzaren 29ko ALHAOn argitara emandako udal ordenantza, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta lege horren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen eta laguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

II. Kontzeptua

Udalerriko biztanleen, elkarten eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen aldeko dirulaguntza edo laguntzat hartuko da Lantarongo Udalaren funts publikoen doako edozein zuzkidura, baldin eta proiektuak eta jarduerak Lantarongo udal mugartearen barnean garatzen badituzte eta honako arlo hauekin zerikusia badute:

1. Gizarte eta komunitatea sustatzeko jarduketak: hirugarren adinekoak. Umeentzako edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdiko jarduketak. Familia. Udalerrian jarduerak sustatzea. Ingurumenaren babesa.

2. Kultura sustatzeko jarduketak: prestakuntza eta arte sormenekoak. Herritarrek parte hartzeko kultura jarduerak. Euskara. Kultura zabaltzekoak. Bisita kulturalak.

3. Kirola sustatzeko esku hartzeak: kirol jarduerak. Federazioaren txapelketa eta liga ofizialetan parte hartzea. Kirol ekimenen antolakuntza eta garapena, oinarrizko kirolaren eta Arabako boloaren sustapena.

Udalerriko bizilagunei zuzendutako laguntzak dagokien ataletan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten guztiei emango zaizkie, baita zinegotziei eta horien senideei ere; hala, zinegotziek ezingo dute beraiek edo haien senideek aurkeztutako eskaera prozeduretan parte hartu.

III. Baldintza orokorrak

Emango diren dirulaguntzak eta laguntzak honako partida hauen kontura emango dira: 321.226006. Euskararen aldeko laguntzak (9.400,00 euro), 330.226006. Kultura eta gizarte jarduerak (56.000,00 euro), 340.226007. Kirol jarduerak (36.000,00 euro), 321.421000. Añana Landa Garapeneko Elkarteak (3.672,00 euro), 231.480000. Laguntzak familia eta erakundeei (33.000,00 euro), 320.480000. Eskoletako jantokiak (8.900,00 euro), 231.481000. Ongintzazko elkarteak (1.300,00 euro), 330.481000. Kultura elkarteak (4.800,00 euro), 340.481000. Kirol elkarteak (22.000,00 euro), 231.490000. Hirugarren munduari zuzendutako laguntza (3.065,47 euro). Eta beharrezkoa izanez gero, bereziki proiektu edo jarduera berriak izango direla edo gizarte eta kultura sustatzeko udal zerbitzuak ezagutzen ez dituen edo sor daitezkeen elkarteek edo erakundeek egin ditzaketen ekintzak izango direla aurreikusiz, udalak kreditu gehigarria emateko behar den espedientearen onarpena izapidetuko du onartutako 2018ko aurrekontu likidazioaren gerakinaren kontura, betiere Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritz.

Dirulaguntzak eta laguntzak emateko baldintzak honelakoak izango dira:

a). Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, legez edo arauz bestelakorik ezartzen ez bada.

b). Lehen emandako dirulaguntzek ez dute sortuko eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik, eta beste dirulaguntza bat emateko aurretik dirulaguntza eman izana ez da aurrekarizat hartuko, legez eta arauz bestelakorik ezartzen ez bada.

c). Ezin izango da eskatu dirulaguntzaren zenbatekoa handitzeko edo berrikusteko, salbuespeneko egoerek hori egitea justifikatu ezean.

Ez dira diruz lagunduko BEZari dagozkion gastuak, baldin eta zerga hori berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoa bada.

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzak bestelakoekin bateragarriak izango dira, baldin eta, xede bera izanik, beste erakunde publiko edo pribatu batek irabazi-asmorik gabeko elkarteei edo klubei ematen badizkie eta horrek gainfinantzaziorik eragiten ez badu. Halakorik gertatzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, indarreko legerian ezarritako eran.

IV. Dirulaguntzak emateko eskumena

Laguntza eta dirulaguntzak emateko organo eskuduna udalbatza izango da; hori ez da eragozpen izango eskudantzia horiek toki legeriak ezarritakoaren arabera eskuordetu ahal izateko.

V. Eskaerak aurkezteko epea eta dokumentazioa

2020ko abenduaren 31 baino lehen; salbuespen gisa ondoren aurkeztutakoak ere onartu egingo dira, beste erakunde baten dokumentazioa aurkeztu behar denean eta 2020ko abenduaren 31 eta gero jasoz gero.

VI. Deialdiaren oinarriak

1. Eskola jantokiak.

Berrehun eta hirurogeita hamabost (275,00) euroko laguntza udalerrian erroldatutako haur bakoitzeko, eskualdeko Rivabellosa, Gaubea eta Iruña Okako ikastetxeetako eskola jantokia erabiliz gero (derrigorrezko mailan) 2019/2020 ikasturtean. Hiru urtetik beherako haurren kasuan, Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur eskola mailan (3 urtera arte), laguntza hirurogeita hamabost (375,00) eurokoa izango da. 2019/2020 ikasturtearen amaieran ordainduko da, 2020ko ekainean.

Laguntza hori ez da bateragarria izango beste erakunde batek emandako beste edozeinekin, baldin eta egiaztatzen bada kontzeptu bererako dela idatz zati honetan finkatutakoa baino zenbateko handiagoarekin. Udal laguntza honen zenbatekoa gaunditzen ez badu, laguntzarako eskubidea izango du, baina zenbatekoa murriztuz, aipatutako kopurua ez gaunditzeko.

Ikastetxera ikasturte osoan joan ezean edo ikasturte osoan errolaturik egon ezean, laguntzaren zenbatekoa modu proportzionalan kenduko da.

2. Jostailuak.

Udalerrian erroldatutako 11 urtera arteko haurrei zuzenduta. 11 urteko haurrentzat, adin horretarako egokiagoa den opari batez aldatuko da.

3. Haurren udalekuak.

Udalak Añanako Kuadrillak antolatutako udalekuetan gazte erroldatu bakoitzeko sortzen den defizita bere gain hartuko du, betiere Kuadrillak egindako proposamenarekin bat etorritik. Proposa daitezkeen bestelako proiektu edota jarduerak eskaintzaren arabera aztertuko dira.

4. Haurtzaindegia.

Haurrak Gaubeako eta Rivabellosako eskualdeko ikastetxe publikoaren haurtzaindegietara bertaratzeagatik 2019-20ko ikasturtean: sortutako gastuaren ehuneko 80ko laguntza emango da haur eta ikasturte bakoitzeko. Gastua behar bezala justifikatu beharko da. 2020ko ekainetik aurrera ordainduko da. Ikastetxera ikasturte osoan joan ezean edo ikasturte osoan errolaturik egon ezean, laguntzaren zenbatekoa modu proportzionalan kenduko da.

5. Ikastera lekualdatzeko laguntza.

Arabako Foru Aldundiak 2019/2020ko ikasturtean bizilekutik bestaldeko udalerrri batera bertaratu behar duten ikasle gazteei (unibertsitarioak izan edo ez) laguntza ematen badie beste udalerrri batzuetako ikastetxeetara joateko eta bertan batxilergoko ikasketak, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloak edo unibertsitateko ikasketak egiteko aurreko ikasturteko baldintza berberetan (hau da, zenbateko finko bat, egoitzako udalerrriaren eta ikastetxearen artean dagoen distantziaren arabera finkatuko dena), udalak jarraituko du, aurreko urteetan bezala, Gazteriaren Foru Erakundeak ematen duenaren laguntza osagarria ematen. Laguntza osagarri hori honakoa izango da: 400,00 euro (35 kilometrorainoko distantzia), 475,00 euro (35 kilometrotik 80 kilometrorainoko distantzia) eta 550,00 euro (80 kilometrotik 150 kilometrorainoko distantzia), 2019-2020ko ikasturte osoan udalerrrian errolatuta dagoen ikasle bakoitzeko.

Ordainketa jaso ahal izateko, udal honi laguntza eskatu beharko zaio, Gazteriaren Foru Erakundeak emandako laguntzaren egiaztagiria edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak ikasketak horietarako emandako lekualdaketa laguntzaren egiaztagiria erantsiz. Ikastetxera ikasturte osoan joan ezean edo ikasturte osoan errolaturik egon ezean, laguntzaren zenbatekoa modu proportzionalan kenduko da.

Gazteriaren Foru Erakundeari edo Eusko Jaurlaritzari egindako eskaerak ukatuz gero, laguntza udal honi ere eskatu ahalko zaio; kasu horretan, ikasteko joan-etorrien udal laguntza, udalbatzak alde aurretik aztertu beharrekoa, ordaintzeko Gazteriaren Foru Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak laguntza ukatzeko emandako dokumentazio egiaztagiria ere aurkeztu beharko da, baita ikastetxeak berak emandako bertaratze ziurtagiri bat ere, 2019/2020 ikasturteari dagokionez.

Distantziak zehazteko <http://maps.google.es> web tresna erabiliko da. Horiek kalkulatzeko ibilbiderik laburrena hartuko da kontuan.

6. Kultura elkarteak.

6.1. Xedea.

Aurrekontu mugen barruan lankidetzan jardutea, legeztatutako elkarteek udal mugarte barruan sustatutako gizarte eta kultura jarduerak 2020an sortutako gastuak finantzatzeko, interesgarritzat hartzen badira udalerrientzat.

Ez dira diruz lagunduko herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berriazko jarduerak, ezta norberaren erabilerako materiala, otorduak, lunchak eta abar, dietak eta joan-etorriak ere. Orobat, ez dira diruz lagunduko elkartearen barne funtzionamenduaren edo kudeaketaren ondorioz sortutako gastuak eta materialak, ez eta jardueren zabalkundeari dagokion publizitatea eta udalak eskainitakoen proiektu paraleloak ere, azken horiek udalaren esku-hartzea osatzeko ez badira.

6.2. Onuradunak.

Irabazi-asmorik gabe eratu diren eta egoitza Lantaronen finkaturik duten elkarteak, baldin eta legez Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezarritakoaren arabera eraturik eta erregistraturik badaude eta haien programak edo jarduerak udal mugarte barruan egiten badira elkarteak kokaturik dagoen herriko biztanleei zuzenduta eta 2020an garatu beharreko egutegi zehatza izanda.

Ez dira izango dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluko ildo horretan ezarritako zirkunstantziak betetzen dituzten eskatzaileak.

6.3. Izaera.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira; gauzak horrela, ez dago aurkezten diren eta deialdi honen oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei laguntza emateko betebeharririk, eta ezin izango dira arrazoitzat hartu aurrekari gisa. Udalaren dirulaguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketen beste batzuekin; dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, beste

erakunde batzuen beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin izango du gainditu egindako jardueraren defizita. Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoa emaitzazko defizitaren gainean kalkulatu da.

6.4. Eskabideak.

Interesa duten elkarteek dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztu beharko diote udalari, antolatu nahi dituzten ekintzak eta jarduerak finantzatzeko, betiere ekintzok aurrera eraman aurretik.

Eta horri eskaeraren sinatzailearen NANaren fotokopia eta elkartearen IFK eta estatutuak erantsiko zaizkio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren elkartearen eta erakundearen erregistroan legez osatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Horrekin batera, jarduera proiektua aurkeztuko da; proiektuan honakoak jasoko dira: lortu nahi diren helburuak, garapen egutegia, programaren edo jardueraren kostu desglosatua, deialditik kanpo kudeatu beharreko baliabideak, beste erakunde batzuen dirulaguntzak (Foru Aldundia...), bai emandakoak bai eskatutakoak eta ebazteko daudenak ere, aurreko urtean izandako dirulaguntza eta haren zenbatekoa zehaztea, jardueraren araberrako diru sarrerak, taldearen kideen zerrenda, bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuotak eta elkartearen titulartasuneko kontua.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute garatutako jardueren inguruan udalak eskatutako datuak eta dokumentazioa aurkezteko.

6.5. Prozedura.

Dirulaguntza emateko prozedura norgehiagoka bidezkoa izango da, hau da, eskaerak erkatuz.

6.6. Zenbatekoa.

Korporazioak, eskaeraren ondoren egin beharreko lehenengo bilkuran, erabakiko du ea dirulaguntza bidezkoa den manuz eta ekintza egin baino lehen, behin dokumentazioa aztertuta (programa, jardueraren aurrekontua eta gainerako dokumentazioa). Dirulaguntzaren zenbatekoa emaitzazko defizitaren gainean kalkulatu da eta inoiz ezin izango da dirulaguntza gisa ordaindu elkarteak bere jarduera guztietarako duen urteko defizitetik gorako zenbatekoa; halaber, programen balorazio irizpideei jarraituko zaie, gizartea eta kultura sustatzeko zerbitzuaren txostenari jarraituz.

a). Prestatutako ekintza, proiektuaren edo programaren bideragarritasun, seriotasun eta interesagatik, 30 punturaino.

b). Proposatutako jardueraren eta helburuen interes publiko edo sozialagatik eta udalerrian izango duen eraginagatik, programaren edo jardueraren bidez onuradunak izan daitezkeen herrietako pertsona kopurua aintzat hartuz; 30 punturaino.

c). Asebetetze eta partaidetza mailagatik, elkarte berak aurreko urteetan eskatutako diru laguntzen benetako gastuaren justifikazioa eginez; 20 punturaino.

d). Beste erakunde batzuei eskaerak egin zaizkiela egiaztatzeagatik eta eskatzaileak bestelako finantzazio bideak eskuratzeko duen zailtasunagatik; 10 punturaino.

e). Erakunde eskatzailearen baliabide ekonomiko propioen eta eskatutakoaren arteko proportzionaltasunagatik; 5 punturaino.

f). Egin beharreko jardueren kopuruagatik; 5 punturaino.

Balorazioaren ondorioz lortutako puntuak bat etorriko dira aplikazio ehuneko honekin:

1 – 25 puntu: dirulaguntza: ehuneko 0.

26 – 50 puntu: dirulaguntza: ehuneko 50.

51 – 100: dirulaguntza: ehuneko 60ko.

Dirulaguntzaren gehieneko muga 600 eurokoa izango da urtean.

Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean interesdunei ebazpena jakinarazi ezean, Administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsizat joko da.

6.7. Justifikatzea eta ordaintzea.

2020ko abenduaren 31ren aurretik, onartutako dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko da, egindako jardueren fakturen kopia eta ordainagiriak erantsiz. Era berean, egindako jarduera bakoitzaren sarrera eta gastuen balantze desglosatua eta aurrera eraman eta diruz lagundua izan den jarduerari buruzko memoria bat aurkeztuko dira. Bestalde, zinpeko adierazpena egingo da helburu berari begira administrazioari edo erakunde edota organismo publikoei eskatu edo lortutako bestelako dirulaguntza edo laguntzei buruz. Dirulaguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administrazioek eman duen, horren guztiaren egiaztatzea erantsiz.

6.8. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak beharkizun eta baldintzak bete dituela justifikatu behar du, eta dirulaguntza emateko edo hartaz gozatzeko oinarrian izan den jarduera egin duela eta helburua bete duela.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketak guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanaz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

Egiaztatuko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela.

Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukiko ditu, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztapenak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

Jardueraren publizitatean hauxe agertu behar da idatzita: "Lantarongo Udalaren laguntzarekin.

7. Erromeriak eta jarduera tradizionalak.

Udal honek 2020rako duen udal aurrekontua ikusita, bertan modu nominatiboan ezarrita daude honako ekintza tradizionalen zuzeneko dirulaguntzak: Caicedo Yuso eta Quijako erromeriak eta Salcedoko inauteriak. Hala, prozedurari ekitea erabakitzen da, 330.481000 partidaren konturako dirulaguntza emanaz eta Caicedo Yusoko Administrazio batzarrari, "Gaztelu" eta "Amigos de Salcedo" kultura elkarteei errekerimendua eginez dirulaguntzaren eta diru funtsen aplikazioa justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezaten. Halaber, gastu guztiak diruz laguntzeko aukera aztertuko da.

7.1. Justifikatzea eta ordaintzea.

2020ko abenduaren 31ren aurretik, onartutako dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko da, egindako jardueren fakturen kopia eta ordainagiriak erantsiz. Era berean, egindako jarduera bakoitzaren sarrera eta gastuen balantze desglosatua eta aurrera eraman eta diruz lagundua izan den jarduerari buruzko memoria bat aurkeztuko dira. Bestalde, zinpeko adierazpena egingo da helburu berari begira administrazioari edo erakunde edota organismo publikoei eskatu edo lortutako bestelako dirulaguntza edo laguntzei buruz. Dirulaguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administrazioek eman duen, horren guztiaren egiaztatzea erantsiz.

7.2. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak beharkizun eta baldintzak bete dituela justifikatu behar du, eta dirulaguntza emateko edo hartaz gozatzeko oinarrian izan den jarduera egin duela eta helburua bete duela.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanaz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

Egiaztatuko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela.

Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukiko ditu, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

Jardueraren publizitatean hauxe agertu behar da idatzita: Lantarongo Udalaren laguntza-rekin.

8. Kirol elkarteak.

Udal honek 2020rako duen udal aurrekontua ikusita, bertan modu nominatiboan ezarrita dago Lantaron kirol taldeari zuzeneko dirulaguntza ematea, Arabako lehenengo erregionaleko ligan parte hartzeagatik, lehiaketan beste hamasei talde izateagatik eta oinarrizko futbol eskola edukitzeagatik. Horrela bada, udal honek gehienez emango duen laguntza hamasei mila euro da, behin korporazio horrek 2019ko azaroaren 13ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera adierazten diren kontzeptuen justifikazio agiriak ikusita; horiek guztiak 2019/2020 denboraldiaren amaieran aurkeztu beharko dira. Dirulaguntza 340.481000 partidaren kargura emango da.

Kirol federatuaren lehiaketa ofizialetan parte hartzeko sor daitezkeen bestelako kirol elkarteei zuzenduta, dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak aztertuko dira.

8.1. Justifikatzea eta ordaintzea.

Udaleko kirol taldeari errekerimendua egiten zaio denboraldiaren amaieran onartutako dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkez dezan; horri jarduera justifikatzeko dokumentazioaren kopiak erantsiko zaizkio, honako kontzeptuak direla-eta egindako gastuak eta ordainagiriak jasoz: federazioa (fitxak, mutualitateak eta abar), arbitrajeak eta garraioak. Era berean, amaitutako denboraldiari buruzko balantze ekonomikoa egin beharko da, benetan egindako gastu desglosatu guztiak eta lortutako sarrera desglosatu guztiak jasoz, horien barnean Futbol Eskolako gurasoen partaidetza kuotak sartuz, bai eta administrazioaren edo organismo edo erakunde publikoen bidez lortutako laguntzak eta dirulaguntzak eta gainerako diru sarrerak ere. Dirulaguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administraziok eman duen, horren guztiaren egiaztagiria erantsiz. Ez da dirulaguntzarik emango afaririk, taldeko bazkaririk edo antzekorik egiteko.

Denboraldiaren hasieran 8.000 euroko aurrerakin bat emango da kontura egindako ordaintzaren gisa eta 2019-20ko denboraldian emango den laguntzaren kontura.

Udalak emango duen behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoa finkatuko du, justifikatutako hiru kontzeptuen gastuaren kopurua kontuan hartuz eta ezarritako gehieneko laguntzaren zenbatekoarekiko proportzioari eutsiz, baldin eta kontzeptu horiek direla-eta benetan egindako gastuak aurreikusitako kopurura iristen ez badira.

8.2. Onuradunaren betebeharrak.

Denboraldia amaitutakoan, dirulaguntza oinarritzen duen jarduera egin dela egiaztatu behar da eta ezarritako beharkizun eta baldintzak bete direla justifikatu.

Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartuko ditu, bai eta, espedientea izapidetzen duen organoak hala eskatuta, finantzak kontrolatzeko egiten dituztenak ere, Lantarongo Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo bestelako organo eskudunek eskatutakoak barne. Orobat, kontrol zereginak erraztera beharturik daude, eta, bereziki, aztertu nahi den dokumentazioaren eskuragarritasuna erraztera, betiere haren kopia eskuratzeko aukera emanez eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztuz.

Bestalde, udalari jakinarazi beharko diote helburu berari begirako dirulaguntzarik eta laguntzarik eskuratu duten ala ez, laguntza eman duen administrazioa edo erakundea, publikoa edo pribatua, edozein izanagatik ere. Eta dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri. Gainera, udal honen diru laguntzei eta laguntzei buruzko ordenantza orokorraren 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

9. Gaubeako igerilekuak.

Gaubeako igerileku estalien urteko abonuen kostuaren ehuneko 70eko laguntza emango zaie udalerrian erroldatuta dauden pertsoneri.

Interesdunak eta, bereziki, adinekoak lekualdatzeko zerbitzua, igerileku horretan egin ohi den errehabilitazio ikastaroa egin dezaten; era berean, ikastaro mota horiek Lantarongo udal igerilekuetan udaldian antolatzeko aukera.

10. Bola jokoen taldeak eta txirringularitza kluba.

Udal honek 2020rako duen udal aurrekontua ikusita, bertan modu nominatiboan ezarrita dago herrietako bolo taldeei zuzeneko dirulaguntza ematea, jarduerak antolatzeagatik eta txapelketa ofizialean parte hartzeagatik. Horrela bada, prozedurari ekitea erabaki da, talde bakoitzari hirurogei (60) euroko laguntza emanez irteera bakoitzeko, 340.481000 partidaren kontura. Halaber, CaicedoYuso eta Komunioiko administrazio batzarrei eta boloen txapelketa ofizialetan parte har dezaketen beste batzuei errekerimendua egiten zaie dirulaguntzaren eta funtsen aplikazioa justifikatzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten.

Udalerriko herrietan Arabako bola-jokoan aritzen dira, eta hori sustatzeko interes handia dago, haietako batzuk Araban egiten diren txapelketetan ere parte hartuz. Hori kontuan izanik, Araba bola-joko klubari jakinarazten zaio udal honek nahi duela herrien arteko bola-jokoaren 44. txapelketako finalak Komunioiko kirol instalazioetako bolatokian egitea. Horretarako, instalazioak lagako dira, baldin eta txapelketa jokatzetik badago. Final horiek jokatzeko finantziazioan ere parte hartuko du udalak, eta gehienez ere bi mila euro eta garaikurra emango ditu.

2020. urterako udal honen udal aurrekontua ikusita, bertan txirringularitza klubari zuzenean dirulaguntza izenduna ematea aurreikusi da, lauhun eurokoa (400) junior mailako Arabako itzulian CaicedoYuso etapa bat edo udalerritik pasatzen den beste edozein txirringularitza proba antola dezan; hala, prozedura hastea erabaki da, dirulaguntza 340.481000 partidaren kargura emanez. Klubari dirulaguntza eta funtsak aplikatu izana justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio.

10.1. Justifikatzea eta ordaintzea.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legean, eta udal honen dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean (2006ko maiatzaren 29ko ALHAO, 59. zenbakia) xedatutakoari jarraituz, laguntzak ordaintzeko jarduera egin dela egiaztatu beharko da, benetan egindako gastuen eta lortutako sarreraren dokumentazioa aurkeztuta, eta bi horien arteko defizita lagunduko da, zehaztutako mugaraino. Ez da dirulaguntzarik emango afaririk, taldeko bazkaririk edo antzekorik egiteko.

2020ko abenduaren 31 baino lehen, onetsitako dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu beharko da, agiri hauekin batera: eskatutako dokumentazioaren kopia, egindako jardueraren balantze ekonomikoa, benetan egindako gastuak eta lortutako sarrerak xehakaturak; horietan sartu beharko dira parte hartzeagatik ordaindutako kuotak, eta jasotako laguntza edo dirulaguntza mota guztiak, edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk emandakoak. Beste dirulaguntzaren edo laguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administrazio eman duen, horren guztiaren egiaztatzea erantsiz. Eta, dirulaguntza jaso duen jardueraren memoria eta zinpeko aitortzea, zeinak adieraziko baitu xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Udalak emango duen behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoa finkatuko du, justifikatutako gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta.

10.2. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak beharkizun eta baldintzak bete dituela justifikatu behar du, eta dirulaguntza emateko edo hartaz gozatzeko oinarrian izan den jarduerara egin duela eta helburua bete duela.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketara guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuk eskatutakoak barne. Orobat, kontrol zereginak erraztera beharturik daude, eta, bereziki, aztertu nahi den dokumentazioaren eskuragarritasuna erraztera, betiere haren kopia eskuratzeko aukera emanez eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztuz.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukiko ditu, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztapenak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

Jarduerari buruzko publizitatean honako adierazpen hau azalduko da: Lantarongo Udalaren laguntzarekin.

11. Hirugarren adinekoen txangoak.

Urtean txango bat, egunekoa eta doan, udalerrian erroldatutako pertsona zuzenduta, 60 urtetik gora (60koak barne). Ezkontideetariko batek 60 urte baditu, beste ezkontidea bertaratu ahal izango da adin hori izan ez arren, biak elkarrekin badoaz betiere.

12. Eguneko artapen zentroak.

Eguneko artapen zentroak administratzeak eta kudeatzeak dakarten kostua bere gain hartzea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizatearen Sailak diruz laguntzen ez duen zatiari dagokionez eta lurraldeko edozein zentrotan erabiltzaile gisa sarrera eskatzen duten udalerriko biztanleei dagokienez, zerbitzua udalerrian ematen ez den bitartean.

13. Laguntza hirugarren munduari, eta garapen eta lankidetzari.

Udalak 2020rako duen aurrekontua kontua izanik, aurreikusita dago laguntza zuzenak ematea nominatiboki, esaterako 2020rako udal aurrekontuaren ehuneko 0,2 (3.065,47 euro) "hirugarren mundua" garatzeko lankidetzara eta elkartasun gisa; horretatik ehuneko 10 Euskal Funtsera doa eta gainerakoa Medicus Mundi, Manos Unidas eta elizbarrutietako misioen artean hainbanatuko da. Halaber, helburu horri begira erakunde publikoei egin dakizkiekeen bestelako ekarriak ere aztertuko dira.

Udal honek 2020rako duen aurrekontua kontua izanik, aurreikusita dago laguntza zuzenak ematea nominatiboki, hain zuzen, Bultzain pertsonen harrerarako elkarteari eta elikagaien bankuari, bakoitzari gehienez 600,00 euroko laguntza emanez, aurkeztu beharreko balantze ekonomikoaren arabera.

Prozedura hastea erabaki da, dirulaguntzak 231.480000 aurrekontu partidaren kargura emanez. Entitateei dirulaguntza eta funtsak aplikatu izana justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie.

13.1. Justifikatzea eta ordaintzea.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legean, eta udal honen dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean (2006ko maiatzaren 29ko ALHAO, 59. zenbakia) xedatutakoari jarraituz, laguntzak ordaintzeko jarduera egin dela egiaztatu beharko da, benetan egindako gastuen eta lortutako sarreraren dokumentazioa aurkeztuta, eta bi horien arteko defizita lagunduko da, zehaztutako mugaraino. Ez da dirulaguntzarik emango afaririk, taldeko bazkaririk edo antzekorik egiteko.

2020ko abenduaren 31 baino lehen, onetsitako dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu beharko da, agiri hauekin batera: eskatutako dokumentazioaren kopia, egindako jardueraren balantze ekonomikoa, zeinean benetan egindako gastuak eta lortutako sarrerak xehakaturik egongo baitira, eta jasotako laguntza edo dirulaguntza mota guztiak, edozein administraziok, erakunde publiko edo pribatuk emandakoak. Beste dirulaguntzaren edo laguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administraziok eman duen, horren guztiaren egiaztagiria erantsiz. Eta, dirulaguntza jaso duen jardueraren memoria eta zinpeko aitortpena, zeinak adieraziko baitu xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Udalak emango duen behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoa finkatuko du, justifikatutako gastuaren zenbatekoa kontuan hartuta.

13.2. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak beharkizun eta baldintzak bete dituela justifikatu behar du, eta dirulaguntza emateko edo hartaz gozatzeko oinarrian izan den jarduera egin duela eta helburua bete duela.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketak guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuk eskatutakoak barne. Orobat, kontrol zereginak erraztera beharturik daude, eta, bereziki, aztertu nahi den dokumentazioaren eskuragarritasuna erraztera, betiere haren kopia eskuratzeko aukera emanez eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztuz.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukiko ditu, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

Jarduerari buruzko publizitatean honako adierazpen hau azalduko da: Lantarongo Udalaren laguntzarekin.

14. Euskara ikasteko beka.

Ordaindutako matrikularen ehuneko 75eko beka bat emango zaie ikasleei, baldin eta 2020ko ikasturtea erakunde ofizialetan (AEK, IKA, hizkuntz eskola ofiziala) hasi aurretik eta ikasturtean zehar udalerrian errolaturik badaude. Ikasturtea amaitutakoan ordainduko da, behin matrikula

ordaindu dela egiaztatuta eta asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko egiaztagiria aurkeztuta. Eta era berean, ordaindutako matrikularen ehuneko 60ko beka bat emango zaie ikastaro eta egonaldiagatik udalerrian erroldatutako ikasleei, baldin eta euskara barnetegietan ikasteko ikastaroetara bertaraten badira. Beka ordaintzeko baldintza gisa ezartzen da beka eskatua izan den ikastaroa gainditu dela egiaztatzea.

Eta salbuespen gisa behar bezala justifikaturik eta egiaztaturik dauden kasuetan izan ezik, ez da ikastaroak egiteagatiko bekarik emango, baldin eta lehenago egin eta gaindituta udal honek horietarako beka eman badu.

15. Atzerriko hizkuntzak ikasteko beka.

Ordaindutako matrikularen ehuneko 50eko beka bat emango zaie ikasleei, baldin eta 2020ko ikasturtea erakunde ofizialetan (hizkuntz eskola ofiziala...) hasi aurretik eta ikasturtean zehar udalerrian erroldaturik badaude. Ikasturtea amaitutakoan ordainduko da, behin matrikula ordaindu dela egiaztatuta eta asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko egiaztagiria aurkeztuta.

Beka ordaintzeko baldintza gisa ezartzen da beka eskatua izan den ikastaroa gainditu dela egiaztatzea.

Eta salbuespen gisa behar bezala justifikaturik eta egiaztaturik dauden kasuetan izan ezik, ez da ikastaroak egiteagatiko bekarik emango, baldin eta lehenago egin eta gaindituta udal honek horietarako beka eman badu.

16. Añanako Landa Garapenerako Elkartea.

"Añana" Landa Garapenerako Elkartearekin lankidetzan jarraituko du, Lantaronen aurrera eraman ditzakeen proiektuen garapenean, korporazio honek gai honi buruz hartuko duen erabakiarekin bat etorritik, betiere 2012ko ekainaren 13an egindako osoko bilkuraren erabakian ezarrita ez dagoenari dagokionez.

17. Jaiotza saria.

2020an jaiotzen diren haurrentzat, baldin eta horien gurasoetako bat udalerrian erroldatuta badago gutxienez haurra jaio baino urtebete lehenagotik.

Hauexek izango dira emango diren laguntzak: 150,00 euro, urtebete betetzean. 250,00 euro, bi urte betetzean eta 350,00 euro, hiru urte betetzean.

Nahitaezko izango da haurra eta gutxienez gurasoetako bat udalerrian erroldatuta jarraitzea.

Laguntza eskatzen duen amak edo aitak egiaztatuko du erroldaren betekizunak betetzen direla, eta horretarako erroldaren ziurtagiriak, familia liburua edo izatezko bikoteen erregistroan (non seme-alaba sartuta egongo den) inskribatuta daudeneko egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

18. Ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteak.

Rivabellosa, Gaubea eta Iruña Okako eskualde ikastetxeetako (derrigorrezko maila) ikasleen guraso elkartearen jardueretarako laguntzak emango dira, 2019/2020 ikasturterako, eta Badaia BHI Bigarren Hezkuntzako Instituturako ere bai.

2020ko udal aurrekontuari atxikiz, jasota dagoenez familia eta erakundeei laguntzak ematea, erabaki da hasiera ematea elkarte horiei laguntza zuzenak emateko prozedurari indarreko udal aurrekontuaren 231.480000 partidaren kontura, horren xedea baita finantzatzen laguntzea elkarte horiek bere eremuaren barruan sustatzen dituzten jarduera soziokulturalek eta hezkuntzakoek eragindako gastuak, parte hartzen duten udalerriko ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeelakoan.

Ez dira lagunduko hauetan egiten diren gastuak: norberaren erabilerako materiala, otorduak, lunchak eta abar, dietak eta joan-etorriak. Ezta elkartearen barruko funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira; gauzak horrela, ez dago aurkezten diren eta deialdi honen oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei laguntza emateko betebeharririk, eta ezin izango dira arrazoitzat hartu aurrekari gisa. Udalaren dirulaguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketen beste batzuekin; dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, beste erakunde batzuen beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin izango du gainditu egindako jardueraren defizita. Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoa emaitzazko defizitaren gainean kalkulatu da.

18.1. Eskaera.

Interesa duten elkarteek dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztu beharko diote udalari, antolatu nahi dituzten ekintzak eta jarduerak finantzatzeko, betiere ekintzok aurrera eraman aurretik.

Eta horri eskaeraren sinatzailearen NANaren fotokopia eta elkartearen IFK eta estatutuak erantsiko zaizkio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren elkartearen eta erakundearen erregistroan legez osatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Horrekin batera, jarduera proiektua aurkeztuko da; proiektuan honakoak jasoko dira: lortu nahi diren helburuak, garapen egutegia, programaren edo jardueraren kostu desglosatua, deialditik kanpo kudeatu beharreko baliabideak, beste erakunde batzuen dirulaguntzak (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritz...), bai emandakoak bai eskatutakoak eta ebazteko daudenak ere, aurreko urtean izandako dirulaguntza eta haren zenbatekoa zehaztea, jardueraren araberrako diru sarrerak, taldearen kideen zerrenda, bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuotak eta elkartearen titulartasuneko kontua.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute garatutako jardueren inguruan udalak eskatutako datuak eta dokumentazioa aurkezteko.

Eskaerarekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira elkartearen balantze ekonomikoa, azken ikasturtekoa, zatituta egindako jardueren gastuak eta diru sarrerak, eta aurtengo ikasturterako aurrekontua.

18.2. Prozedura.

Korporazioak, eskaeraren ondoren egin beharreko lehenengo bilkuran, erabakiko du ea dirulaguntza bidezkoa den manuz eta ekintza egin baino lehen, behin dokumentazioa aztertuta (programa, jardueren aurrekontua eta gainerako dokumentazioa). Dirulaguntzaren zenbatekoa emaitzazko defizitaren gainean kalkulatu da eta inoiz ezin izango da dirulaguntza gisa ordaindu elkarteak bere jardura guztietarako duen urteko defizitetik gorako zenbatekoa.

Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean interesdunei ebazpena jakinarazi ezean, Administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsizat joko da.

18.3. Justifikatzea eta ordaintzea.

2020ko abenduaren 31ren aurretik, onartutako dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko da, parte hartu duten udalerriko ikasleek egindako jardueren fakturen kopia eta ordainagiriak erantsiz. Era berean, egindako jardura bakoitzaren sarrera eta gastuen balantze desglosatua eta aurrera eraman eta diruz lagundua izan den jarduerari buruzko memoria bat aurkeztuko dira. Bestalde, zinpeko adierazpena egingo da helburu berari begira administrazioari edo erakunde edota organismo publikoei eskatu edo lortutako bestelako dirulaguntza edo laguntzei buruz. Dirulaguntzaren bat jaso bada, adierazi beharko da zein izan den jasotako zenbatekoa eta zein administrazioi eman duen, horren guztiaren egiaztagiria erantsiz.

18.4. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak beharkizun eta baldintzak bete dituela justifikatu behar du, eta dirulaguntza emateko edo hartaz gozatzeko oinarriari izan den jardura egin duela eta helburua bete duela.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketara guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanaz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana, publikoak edo pribatuak izan. Eta dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri.

Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

19. Adinekoak.

Oinarrizko gizarte zerbitzuarekin aztertuko da beharrezana duten adinekoei laguntzak eman ahal zaizkien, zaintzaile, garbitasun, etxebizitza egokitu eta abarretarako.

20. Podologo zerbitzua.

Zerbitzu hori erabiltzen duten pertsonen emango zaizkien laguntzen berriazko oinarriak aztertuko dira. Zerbitzu hori Fontechako lokal batean ezarriko da.

21. Energia berriztagarrien sustapena.

Energia berriztagarriak sustatzeko laguntza emateko oinarri zehatzak aztertuko dira.

22. Arauen interpretazioa.

Udalak arauak interpretatzeko ahalmenari eutsiko dio; haren irizpidea gailenduko da aplikatzeko orduan zalantzarik izanez gero.

Komunioi, 2020ko maiatzaren 28a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO